



# **EKOIZLE TXIKI ETA HANDIEN ETXEKO HONDAKINEN ZATIKI ORGANIKO KONPOSTAGARRIA BILTZEKO HAINBAT EDUKIERATAKO POLTSA KONPOSTAGARRIEN HORNIKUNTZARAKO BALDINTZA-AGIRIA**

*Data: 2015-07-13*

1 – Kontratuaren xedea.....	2
2 – Kontratuaren balio zenbatetsia, aurreikusitako ale edo unitateen hornikuntza eta edukiontzien banaketa loteka.....	2
3 – Hornikuntzaren ezaugarri teknikoak.....	2
3.1 Hornitzeko poltsen neurriak eta ezaugarri teknikoak.....	2
3.2 Hornigaia entregatzeko baldintzak.....	4

## **1 – Kontratuaren xedea**

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuaren helburua hau izango da: ekoizle txiki eta handien (etxebizitza, merkataritza-jarduera, ostalaritza-jarduera, etab.) etxe hondakinen zatiki organiko konpostagarria biltzeko hainbat edukieratako (10, 20, 40, 60 eta 120 litroko) poltsa konpostagarrien hornikuntza.

## **2 – Kontratuaren balio zenbatetsia, aurreikusitako ale edo unitateen hornikuntza eta edukiontzien banaketa loteka**

Kontratu honentzako balio zenbatetsia 250.000 €-koa da (BEZ gabe), gutxi gora behera behean zehazturiko loteetako bakoitzean banatuta:

- 1. LOTEA. 189.300 €.
- 2. LOTEA. 6.050 €.
- 3. LOTEA. 8.050 €.
- 4. LOTEA. 18.150 €.
- 5. LOTEA. 28.450 €.

Poltsa konpostagarrien hornikuntzari buruzko ondorengo zerrendan agertzen diren unitateak orientagarriak dira eta eskaera bakoitzari dagokion kantitateak adierazten dute. Hala ere, eta ez da baztertzeko zehaztutako ale kopurua baino gehiago eskatzea:

- 1. LOTEA (10 l.ko poltsa): 150.000 ale. Gehienezko prezioa aleko (BEZ gabe) 0,055€.
- 2. LOTEA (20 l.ko poltsa): 1.750 ale. Gehienezko prezioa aleko (BEZ gabe) 0,15€.
- 3. LOTEA (40 l.ko poltsa): 1.750 ale. Gehienezko prezioa aleko (BEZ gabe) 0,20€
- 4. LOTEA (60 l.ko poltsa): 2.250 ale. Gehienezko prezioa aleko (BEZ gabe) 0,35€
- 5. LOTEA (120 l.ko poltsa): 2.750 ale. Gehienezko prezioa aleko (BEZ gabe) 0,45€

Mankomunitateak kontratuaren iraupenean zehar behar adina eskaera egiteko aukera izango du. Halaber, gutxienez aurreko zerrendan zehaztutako loteko ale kopuruen %50 eskatzeko konpromisoa hartzen du.

## **3 – Hornikuntzaren ezaugarri teknikoak**

Ondoren aipatzen dira hornitu beharreko elementuen ezaugarri teknikoak, baita hornikuntza egiteko baldintzak ere:

### **3.1 Hornitzeko poltsen neurriak eta ezaugarri teknikoak**

Hornituriko materialak honako baldintza hauek bete beharko ditu:



Edukiera	Forma	Materiala	Bateragarritasuna neurri bertsuko edukiontzia-kin zabal. x sakon. x luze. (cm):**	Gutxi- neko lodiera	Ezaugarriak	Kolorea eta estanzioa	
LOTE1	10l	Zaku mota poltsa	Konpostagarria*	23,8 x 27,5 x 31,5**	16µm	Irazgaitza eta transpiragarria, soldadura zigilatuekin	Boli-zuria edo naturala. Mankomunitateak zehazturiko estanzioa. Konpostagarritasun-ziurtagiriaren logoak eta fabrikazio-data. Tinta bat.
LOTE2	20l	Zaku mota poltsa	Konpostagarria*	29,5 x 34 x 35,3**	22µm	Irazgaitza eta transpiragarria, soldadura zigilatuekin	Boli-zuria edo naturala. Konpostagarritasun-ziurtagiriaren logoak eta fabrikazio-data. Tinta bat.
LOTE3	40l	Zaku mota poltsa	Konpostagarria*	42 x 36,5 x 44,5**	22µm	Irazgaitza eta transpiragarria, soldadura zigilatuekin	Boli-zuria edo naturala. Konpostagarritasun-ziurtagiriaren logoak eta fabrikazio-data. Tinta bat.
LOTE3	60l	Zaku mota poltsa	Konpostagarria*	44 x 50 x 66**	22µm	Irazgaitza eta transpiragarria, soldadura zigilatuekin	Boli-zuria edo naturala. Konpostagarritasun-ziurtagiriaren logoak eta fabrikazio-data. Tinta bat.
LOTE4	120l	Zaku mota poltsa	Konpostagarria*	48 x 48 x 89**	22µm	Irazgaitza eta transpiragarria, soldadura zigilatuekin	Boli-zuria edo naturala. Konpostagarritasun-ziurtagiriaren logoak eta fabrikazio-data. Tinta bat.

\*Poltsa konpostagarria Europako UNE-EN 13432 arauaren arabera, Belgikako AIB-VINÇOTTE erakundeak ziurtatua ("OK Compost") markaren bidez, edo Alemaniako DIN CERTCO erakundeak "compostable" markaren bidez, edo ospe nabarmeneko beste enpresa ziurtatzaileen batek. Ezaugarri horiek abalatzeko, eskaintzaileek beharrezko ziurtagiri guztiak aurkeztu beharko dituzte.

\*\* Neurri hau edukiontzia-aren tamainari buruzkoa da, ez poltsa konpostagarriaren tamainari buruzkoa. Eskainitako poltsa ezin bada ontzien eta edukiontzien ezaugarrietara egokitu, produktua prozesutik kanpo geratuko da.



1. Aurkezteko era: Poltsak bilkari edo biribilki trinkoetan zerbitzatuko dira, bakoitza 20 alekoa. Guztiak homogeneousak izango dira, trinkoak eta kanpoko zerrenda txiki bat izango dute biribilki edo bilkaria desegin ez dadin. Erabili behar direnean, poltsak erraz banatuko dira bilkaritik, mozterakoan haustura edo urradurarik ez gertatzeko moduan.
2. Nahiz eta eskaintzaileak baldintza-agirian eskatzen diren ezaugarrietako poltsak biltegian izan, ez da onartuko poltsa-hornikuntzarik, kontratua izenpetzen denetik hilabete baino lehenagoko fabrikazio-data baldin badute.
3. Proposamenak aurkezterakoan, eskaintzaileak lagin batzuk aurkeztu behar ditu bobinan (gutxienez 20 poltsa), Mankomunitateko zerbitzu teknikoek aztertu ahal izateko, eta egokiak iruditzen zaizkien proba operazionalak egiteko. Proposamen teknikoaren eta bidalitako laginaren artean desadostasuna baldin badago, lagina nagusituko da, bai proposamenak baloratzeko eta bai esleitzeko ondorioetarako. Ez dira lagin hauek itzuliko.

### 3.2 Hornigaia entregatzeko baldintzak

Baldintzak:

1. Poltsen hornikuntza kartoizko kutxetan egingo da, zurezko palet gainean jarriak, horrela beraien manipulazioa, biltegitratzea eta gordetzea errazteko. Kutxetan biribilki kopuru egokia egongo da, horrela kutxen pisua Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren gomendiora hurbil dadin, hau da, ez erabiltzeko eskuetan 15 kg baino gehiagoko zamarik (*"Guía Técnica para la Evaluación y Prevención de Riesgos Relativos a la Manipulación Manual de Cargas"* = Zamak Eskuz Erabiltzeari buruzko Arriskuen Ebaluazio eta Prebentziorako Gidaliburu Teknikoa). Kutxa horiek ikusgai izan beharko dute etiketa batean barnean dakartzan poltsen tamaina (10,20,40,60 edo 120 litro), kutxak dakartzan biribilki kopurua, Mankomunitateak eskaera egiterakoan helarazitako lote zenbaki korrelatiboa eta lotearen fabrikatze data. Honez gain, kutxak bigarren etiketa bat eramango dute bestearen ondoan itsatsita. Etiketa hau RFID sistema bidez irakurtzeko modukoa izan beharko da eta beti kutxaren kanpoko aldean jarriko da. Halaber, kutxak palet gainean daudela ikusgai gelditzen den kutxaren aurpegian egon beharko da jarrita. Eskaerak egitean, Mankomunitateak hornitzaileari helaraziko dizkio kodifikatutako RFID etiketak, eskaerako kutxa bakoitza identifikatzeko lote zenbaki korrelatiboa inpresu daramalarik.
2. Hornigaiaren garraioa kontratuaren prezioan sartuta dago, eta prezio hori ez da aldatuko aurreko atalean ezarritako entrega-sistemagatik, nahiz eta erregaien prezioak aldatetako izan bai gorantz edo bai beherantz.
3. Mankomunitateaz gain, esleipendunak, kontratuak iraun bitartean, hornituriko materialaren kontrola eramango du, eta, hala balegokio, fabrikazioz akatsa duten aleak, edo garraioan edo esleipendunak manipulatu bitartean hondatuak, berriz jarriko ditu.



4. Mankomunitateko zerbitzu teknikoek berariaz onartuko dute egindako entrega, beraren egoera ikuskatu ondoren. Dena den, materiala jaso ondoren, Mankomunitateari egozterik ez dagoen arrazoiengatik material akastunak detektatzen badira, esleipendunak birjarri egin beharko du material hori Mankomunitatearentzat kosturik gabe, hornituriko materialaren berme-aldiaren barruan.

**EGINBIDEA.-** Baldintza Agiri hau Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zuen, 2015eko uztailaren 16an egindako bilkuran.

**Arrasaten, 2015eko uztailaren 17an.**

**IDAZKARIA**

**Izpta.: Belén Txintxurreta**